


- **Entzutekuak:** Gipuzkoa Zero Zabor elkarteko Mikel Ikatzategi
- **Kirola:** Iñaki Ruizen omenezko I. mendi lasterketa San Andresetan

soraluzeko  
hamabostekaria **265.** alea  
2012ko maiatzaren 25ean

# pil...ean



**Iñaki Perurena**  
**“Harriak gure kulturean  
duen zatia azaltzera nator”**



Soratzeko  
**Euskal Jaixak**  
2012



**XLII. Haurren Euskal Jaixa**  
Ekainak 3, domeka  
Egun osoan zehar herriko kaleetan.



**"Harri eta herri" hitzaldia**  
Ekainak 7, eguaztena  
Inaki Perurenaren eskutik,  
19:00etan Zine aretoan.



**KANTALDIA, Zuberoako  
musikaqintzan barrena**  
Ekainak 21, eguena  
19:00etan Abadetseko aretoan.

**V. Erromerixa eguna**  
Ekainak 9, zapatua  
Ezuzin, egun osoan zehar.



**Antzerkia**  
Ekainak 8, eguena  
"Lingua nabajorum,  
Euskararen historia txorua",  
22:15ean Antzokian



Antolatzaileak:



Laguntzaileak:



# 100 urte etorkizuna sortzen



- FABRIKAZIO MEKANIKOA
- MANTENIMENDUA
- MEKATRONIKA
- ROBOTIKA
- ELEKTRIZITATEA
- ELEKTRONIKA
- AUTOMATISMOAK
- TELEKOMUNIKABIDEAK-  
INFORMATIKA

**Izenematea: Maiatzaren 28tik ekainaren 8arte**

Isasi, 36 - 20600 Eibar - Tfno. 943 20 32 44 - e-mail: eibar@armeriaeskola.com

**www.armeriaeskola.com**

**EGOITZ UNAMUNO****ARITZ ARIZAGA**

## PLAENTXIARRAK EZAGUTZIAREN POZA!

**K**aixo Aritz, Konturatuko hintzan heu be aspalditxuan herrixan belaunaldi berdineko “kintakuen” jatorduak dezente ugarittu dirala. Seguruena kontu orokorra izango dok. Plaentxian moduan inguruko herrixetan be jentia gogua eukiko jok tarteka eskolako lagunekin mahai bueltan batzeko.

Eskolan denbora asko egitten juau elkarrekin eta horrek asko lotzen jok. Baina lotzen daben moduan bereizi be egitten jok, beste adin bateko jentia gandik, beste eskola batzuetako pertsonengandik... Guria moduko herri txikixa izan arren be, badaok jentia “bistaz” bakarrik ezagutzen dana eta beste asko bistaz bez.

Zorionez, badauaz herrixan beste pertsona batzuekin harremantzeko bidia be emoten daben topaguniak. Kirol taldiak dirala, kulturegintzako ekimenak, gastronomia elkartiak, eskualtegiak, tabernak, Gaztetxia...

Neri herrixan gusto gehixen emoten dostan gauzetako bat horixe dok, adin eta inguru diferentietako jentia ezagutzia eta tarteka tope egittia batzen gaituan zeozertan.

Azkenengo probatu doten klase horretako ekimena Berbalagunana izan dok eta uste baino plazer haundixagua emon jostak. Kataluniar gazte bat, bi emakume langile, ikasle gazte bat eta neu mahai baten bueltan. Astian behin batuko gaittuk Txokuan, berba eginaz gozatzia beste ardura barik.

Nik herrixan pertsona bat gehixago ezagutzen doten bakoitzian poz bat gehixago hartzen juat.

“

**“Herritar bat gehixago ezagutzian, poz bat gehixago hartzen juat”**

Egoitz Unamuno

**I**epa Egoitz, Larrazaioa daukak, Plaentxia eztok herri haundixa esatekotan eta “bistaz” be ezagutzen ez dan jenderik badaok bai... Ez juat pentsatu nahi orduan herri haunditxuago batian, edo zer esanik ez Gasteiz edo Donostia moduko hirixetan. Han atari berdineko “bizilagunak” be ezagunak izango dittuk.

Diñok, Egoitz, eskoliak urte bereko pertsonen arteko erlaziñuak sortzen dittuala eta hala dok, baina beti jaok bizitzera kanpora juan danik edo aldrebes kanpotik hona etorri danik eta urtekuen artian be ezezagunak egoten dittuk. Askotan entzun izan juat “herri txikixetan danak familixakuak izaten dittuk”, eta pentsatzen jarri ezkerero hau eztok hola, edo bestela Plaentxi eztok herri txikixa.

Herriko jendian artian harremanak sortzeko hainbat topagune dare, bai. Topagune hauetako bat izan leike, beste adibide bat jartzia-rran, herriko abesbatza. Han naguala, lehenago batzuk lagun, beste batzuk ezagun eta beste danak ezezagun na-jeukazen jende talde bat, oin danak lagun jaukaraz. Gainera, hik esan bezela, gozatu egitten juau, kantatzen.

Pertsona bat ezagutzia beti dok pozgarrixa, batak bestiari eta bestiak batari emon ahal dotsan danagaittik. Eta zer esanik ez, pertsona hori herrikua bertakua badok, eta sarri harekin egoterik badakak.

**“Beti dok pozgarrixa, batak bestiari emon ahal dotsan danagaittik”**

Aritz Arizaga

”

Goguan hartzeko

**“Berbalagunakin segurtasuna lortziaz gain lagunak egin ditut, eta beti euskeraz egitten dogu!”**

Pili Espiga, Berbalaguna



## GUTUNAK

Zorionak eta mila esker!

Zorionak zapatuan, maiatzaren 19an, Goazen Plazara! ekimenean parte hartu zenuten herri-tar guztioi. Plaentxin ehun eta hogeit hamar pertsona inguru elkartu ginen ekimen parte hartzailean, irudi deigarri bat osatuz. Euskal Herrian guztira 30.000 pertsona inguru, eguraldi txarrari aurre eginez. Horregatik eskerrak umeguneaz arduratu zinetenei, herriko dendariei, musikariei, udalari, gazte asanbladari, eta azken finean, eskerrak antolakuntzan parte hartu zenuten lagun guztiei. Era berean, par-

te hartu ez zenuten plaentxiarrak, (nahiz eta Euskal Preso Politikoen eskubideen alde egon), datozen hilabeteetan antolatuko ditugun ekimenetan parte hartzera animatu nahi zaituztegu; herri bilgunean, azken barixakuko elkarretaratzean...

Eta amaitzeko, laguntza dei bat! Gure jarduerarekin aurrera jarraitu eta bilkurak egiteko lokal bat izatea ezinbestekoa zaigu. Zabalik gaude edozein ideia edo ekarpenetara.

### Soraluzeko Herrira

### Pil-pilean aldizkariko gutunetako irizpideak

- Pil-pileanek beti bermatuko du gutxienez hiru gutunentzako lekua, aniztasuna lortzeko eta gutuna argitaratu nahi duten guztiei aukera eskaintzeko. Ondorioz, hiru gutun daudenean, 1.100 karaktereko luzera izango du gehienez gutun bakoitzak. Bi gutun jaso ditugunean edo bakarra, gehienez 1.900 karaktereko luzera izateko aukera izango du gutun bakoitzak. Karaktere kopurua ez bada irizpideotan azalduakoa, Pil-pilean aldizkariko erredakzioak mozteko eskatuko dizu.
- Hiru gutun daudenean, norbaitek 1.900 karaktereko gutuna bere horretan mantendu nahi badu, hurrengo alean argitaratzeko aukera izango du, baldin eta beste bi gutun iristen ez badira. Kasu horretan, 1.100 karakterekoa sartzeko aukera bakarrik izango du.
- Zein gutun sartu eta zein kanpoan geratu erabakitzeko gutuna jaso den data kontuan izan- go da. Bestetik, aurreko alean gutunik sartu ez zuen norbanakoak edo taldeak lehenetsuta izango du aurreko alean gutuna sartu zuenaren aurrean.
- Gutun guztiek izenpetuta egon beharko dute, pertsona bakarraren edo gehiagoren izenean edo talde identifikatu baten izenean. Ez da onartuko adibidez, "herriko jubilatutako batzuk" edo "auzokide batzuk" edo horrelakorik.
- Gutun guztiek formatu bera izango dute: izenburua beltzez, testua eta egile(ar)en izena(k). Ez da letra NAGUSIRIK edo **beltzekorik** azalduko testuan.
- Epea: aldizkaria argitaratzen den asteko martitzen eguardia baino lehenago jasotako gutunak bakarrik argitaratuko ditugu.

# Pil-pilean

**Argitaratzailea:** Pil-pilean Kultura Elkartea. Errabal kalea 15- 1., PK 27 - 20590 Soraluze, Gipuzkoa **Telefonoa:** 943 75 13 04 **e-maila:** aldizkaria@pilpilean.com **Erredakzioa:** Leire Iturbe eta Miren Narbaiza **Erredakzio batzordea:** A. Unamuno, E. Unamuno eta A. Madrid, L. Iturbe eta M. Narbaiza **Publizitatea:** Ane Larreategi **Logotipoa:** Pablo Galarraga eta Silvio Vaz **Disenua:** Silvio Vaz **Maketazioa:** Iñigo Uribebarria **Inprimategia:** Gertu Koop. **Banaketa:** Pil-pilean Ekoizpena, 2.000 ale **I.Z.K.a:** G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Pil-pilean Kultura Elkarkeak ez du bere gain hartzen aldizkariko esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

**KULTURA SAILA**  
Hizkuntza Politikarako Saiburuordetza



SORALUZKO UDALA



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA



## bittartetik



Oier Zubizarreta  
Gure esku

**B**adira bi hilabete greba orokorra egin genuela, azken denboran jasaten ari garen erreformen aurka. Zifrekin arrakastatsua izan zela adierazi daiteke baina ordutik hona jasan ditugun ostiraleroko erreforma berriek kontrakoa adierazten dutela uste dut.

Gure borrokaren inguruko hausnarketa beharra daukagula pentsatzen dut. Hilabete lehenago prestatutako egun bateko greba nahikoa al da? Non daude egun batetik besterako erantzunak? Eguneroko borroka? Greba mugagabeak? Langileen arteko elkartasuna? Gaur egungo antolaketa ereduak balio al dute? Mila galdera eta erantzunak topatu beharra, gure bidea eman korra izan dadin.

Baina besteei errua botatzeaz gain bada garaia sistema honetan ditugun erantzukizunak onartzeko; ni, gutxienez, jasaten ari garen egoeraren erantzuleetako bat sentitzen naiz, nire kontsumo, elikadura, lan, aisialdi, mugikortasun, harremantze eta mila bizi ohiturekin. Azken finean, ni horrela bizitzeko beste milaka pertsonak gosez, egarritz, eta gerran bizi eta hil behar dute.

Mundu berri bat eraikitze bidean, gure bizitzen gaineko autokritika egin eta erabakiak hartzeko boterea berreskuratuz, bizi eredu hobekak landu beharko genituzke.

## Mikel Ikatzegi, Gipuzkoa Zero Zabor taldeko kidea

Produktuen kontsumo arduratsuaz eta hondakinen kudeaketa zuzenez arituko da Mikel Ikatzegi, Gipuzkoa Zero Zabor taldeko kidea, datorren martitzenean kiroldegian. Berrerabilgarriak ez diren produktuak berriz diseinatu edo sistematik baztertu nahi dituzte eta %80ko birziklapena lortuko duelako, atez-ateko bilketa sistemaren alde daude.

### Zein oinarri ditu Zero Zabor programiak?

Gaur egun materialak lortzeko natura ustiatu, produktuak ekoiztu, kontsumitu eta bota egiten ditudugu. Honen aurrian, berrerabilpenian oinarritutako ekonomia bultzatzen dogu eta ahalik eta material gutxi kontsumituz. Adibidez, esne hornigailuetan norberak etxetik eramandako ontzixetan jasotzen da esnia. Gipuzkoan 280.000 famili inguru daren, aipatutako sistemekin egunero 280.000 tetrabrik erabiltzari lagako gontsake, urtitan 102.200.000 tetrabrik!

### Zein da zehazki zaborrakindaukagun arazo nagusixa?

Gipuzkuan 2011. urtitan 350.000 tona hondakin jaso ziran, 500 kg biztanleko. Hondakinen %90a birziklagarria dan arren, etxietan %25a bakarrik birziklatzen da. Gainerako materialak alferrik galtzen lagatzen ditudugu, ingurumena eta osasuna larriki kalteatuta. Erritmo honetan jarraituz gero, zabortegixak gainezka egingo dabe eta Gipuzkuan egin nahi daben erraustegixak urtitan 100.000 tona zabor toxiko isuriko leukiela aittatzen dau eratu zeben txosten teknikuak.

((ENTZUTEKUAK))



Ikatzegik hitzaldia eskeiniko du martitzenean kiroldegian.

### Herritarrak zela erantzun biharko leukie?

Arduratsu jokatu biharra daukagu. Inork ez dau eskatu bere herrixan zabortegixa irekitzerik eta errausketa plantia ipintzeko proposatu diran leku daretan, iritzi politiko guztietako herritarrak eta zinegotzixak, kontrari jarri dira.

### Zein da birziklatzeko modurik zuzenena?

%80a birziklatzia lortu daben gaikako sistema bakarra, atez-atekoa da. Politikari batzuek, nahitza, bost edukiontziko sistemak ipini dabe atez atekuan parian, baina sistema honekin %35a bakarrik birziklatzen da.

### Atez-atekuakin ados ez darenari, zer esango zontsake?

Atez atekua daukan herriren batera bisitan juateko. Sistema honek dituduan emaitzak ikusgarrixak dira: ordutegixa malgua, merkiagua, inork ez dau isunik jasoko nahastu dalako eta herrixak edukiontzixekin baino garbixago egongo da. Egin aprobial!

*“Gipuzkoan 2011. urtitan 350.000 tona hondakin jaso ziran, 500 kg biztanleko”*

**TXURRUKA**  
JATETXEA

www.txurruka.com  
943 75 15 81

**HNOS. BENITO ANAIAK**

Etxeko eta Sukaldeko Altzariak  
Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

T. eta F. 943 75 20 47  
Santa Ana 26, 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

## Herri hobea irudikatzeagatik DBHko ikasleak saritu dituzte

Institutuko 2. B mailako ikasleek lehen saria eskuratu dute Eskola Agendaren barruan antolatuta-



Saria irabazi duen ikasle taldea.

ko "Amestu zure herria. Zein herri mota aukeratu nahi dugu?" lehiaketan. Debarreneneko ikastetxe guztiei irekia egon da lehiaketa eta bi kategoria izan ditu: muralen margoketa bata, bideo lehiaketa bestea. Herriko ikasleak "Soraluze hobetzekotan gabiltza" bideoagatik saritu dituzte. Irabazleen ustez, herriak badu zer hobetu: "espaloie estuegixak dare herrixan, berdegune gitxi...". Pozik daude egindako lanarekin, baita, ordainetan Deba ibaian kayaken itzulia irabazi dutelako, ikaskide guztientzat gainera.

## LABek lanuztea deitu du 31rako

Espainiako Gobernuak ezarri nahi dituen murrizketen aurrean zerbitzu publiko unibertsalak eta doakoak eta burujabetza politiko eta ekonomikoa aldarrikatu nahi ditu LAB sindikatuak. Maiatzaren 31n

osasungintza, irakaskuntza eta administrazioetako langileak bi orduko lanuztea egitera animatu nahi dituzte. Lanuzte orduetan Soraluzen elkarretaratzea egingo da, 12:30ean Plaza Barrixan.

### Harritzarrak Argarate inguruan

Astelehen arratsaldean harri puska bi jauzi ziren Argarate baserrirako bidearen ondoan. Sarbidea zeharo oztopatu ez arren, traban daude oraindik harriok.



### UEUko ikastaroetan izen-ematea zabalik

Berrogei urte bete dituzte aurtan UEUko udako ikastaroek eta urteurrena berezi bihurtzeko, berrogei ikastaro antolatuta dituzte. Aurtengainera, lehenengoz, "opari bonoak" ipini dituzte salgai. Ikastaroak Eibar, Baiona eta Iruñean eskainiko dira. Informazio gehiago: [www.ueu.org](http://www.ueu.org)

### Autoeskolan euskaraz

"Argi berdea duzu gidabaimena euskaraz ateratzeko" lelopean kanpaina abiatu dute Soraluzeko Udalak eta Solozabal autoeskolak. Hemendik aurrera nahi duenak, gidabaimena lortzeko material guztia euskaraz jasotzeko aukera izango du, eskola teorikoetan nola praktikoenetan, baita azterketa bera euskaraz egiteko ere. Soraluzeko Udalak ikasketak teorikorako matrikula bat zozketatuko du urtero ikasketak eta azterketa teorikoa euskaraz egiten dituztenen artean.

### Udaleku irekietan izen ematea zabalik

Euskaraz aisialdi dibertigarriaz gozatzeko aukera eskaini nahi dute Udalak eta Kukumixo aisialdi taldeak elkarlanean antolatutako udaleku irekietan. Uztailaren 9tik 20ra bitartean sorpresaz beteriko opor egunez gozatzeko aukera izango dute izena ematen dutenek. Aurtan, gainera, kultur aniztasuna eta elkarkidetzaren moduko baloreak landu nahi dituzte. Matrikulak 30 euroko prezioa du eta ekainaren 8ra arte egongo da zabalik, udaletxeko bulegoetan.





**MENDIZABAL**  
okindegia

Kalebarren 10  
T. 943 75 20 91

Baltegieta 6  
T. 943 75 13 99

**SORALUZE**



**SAN ANDRES**  
ITURGINTZA

Iturgintza, gasa,  
eta berogailuak  
sukaldeak eta bainuak

Errebal kalea 2 behea Tel. 943 75 16 46 • 639 179 696



**Auto bat ibaira**

Astelehenean auto bat bere bidetik irten eta Deba ibaira erori zen. GI-627an izan zen istripua, Indubrik eta Ansola parean. Gidaria, emakumea, harrapatuta geratu zen autoan eta suhiltzaileek atera behar izan zuten, Mendaroko ospitalera eman zuten gero. Goizeko 7:50 aldean izan zen ezbeharra, arrazoiak argitu gabe dauden arren, euriak eragina izan zezakeela uste da. Oraindik ez dute autoa erretiratu.



**Auzotarrekin batzartuko da udala**

Maiatzaren 30ean Estaziño, Zeleta eta Elizburu kaleetako bizilagunek auzoari buruz dituzten kezkak eta nahiak jasotzeko batzarra burutuko du Udal Gobernu Taldeak. Bileraren hasiera 19:00etan hasiko da udaletxeko Saio Aretoan.

**Zaborraz jarduteko hitzaldia**

“Zero zabor posible al da atez atekorik gabe?” izenburua duen solasaldia antolatu dute Gipuzkoa Zero Zabor taldekoek datorren martitzenerako, hilaren 28rako, arratsaldeko 19:00etan Zinean. Hitzaldia egungo kontsumo ereduaren analisia egiten hasiko dute eta zaborraren bilketa sistemaz ere arituko dira, atez-ateko bilketa zehatz-mehatz azalduz.

**KZgunea goizez zabalik**

Interneten dohaiarik nabigatu nahi dutenek edota informatikari lotutako zenbait ikastarotan parte hartzeko interesa dutenek Baltegieta kalean dagoen KZgunean dute horretarako aukera. Ekainean goizez egongo da zabalik, 9:00etatik 13:00ra bitartean.

**“Goazen Plazara” ekimenari babes zabala**

Eguraldi txarrak Plaza Zaharra herritarrez betetzeko plana aldatu eta presoen eskubideak kiroldegian aldarrikatu zituzten. Dispersioarekin bukatzea, gaixo larriak etxeratzea

eta kondenaen hiru laurdenak bete dituztenak askatzea eskatu zuten ekimena babestu zuten ehun eta hogeit hamar herritarrek. Hemen egunean zehar jasotako zenbait irudi:



Iturria: Soraluzeko Herrira

**Errespetuan oinarritutako elkarbizitza lantzen**

Guraso eta ikasle asko izan zirenen umore onean Plaentzia Herri Ikastetxeko eskola komunitatea ezagutzera animatu zirenak. Kultura anitzeko irribarre ugari batu zituen festak eta elkarbizitza osasungarria lantzea zuten denek helburu. Gustu handiz urte osoan zehar eginiko lanak ikusgai jarri zituzten eta tailerrak, jolasak eta ostean antolatu zen merienda parte hartze handia izan zuten. Mokadurako tartea hartu eta gero Pottoka taldeak denak dantzan jarri zituen.



Henna tailerra oso arrakastatsua izan zen.



Iturria: Plaentxi H. I.

**ARRANO**  
tabernia

etorri eta gozatu  
giro euskalduna eta sanua

etxera

**MAPFRE**

**SORALUZE ZERBITZUAK S.L.**

Juan Luis Ibarzabal - Ainhoa Ibarzabal

Gabolatz, 5-8 Behea  
20.590 Soraluze (Gipuzkoa)  
e-mail: jibarza@infonegocio.com

Tlf: 943 75 16 58 - 943 75 30 12  
Mugikorra: 649 49 79 59 - 649 75 90 78  
FAX: 943 75 16 10

# “Historia errespetu osoz hartu behar da, iraganak etorkizuna argitu lezakeelako”

*Itxaki Perurena (Leiza, Nafarroa, 1956)*

Harrijasotzailea baino gehiago dela aspaldi frogatu du leitzarrak. Bere azken erronka “Harri eta herri” izeneko hitzaldiak dira eta horixe eskaintzera etorriko da datorren ekainaren 7an Zinera.

## “Harri eta herri”. Zer esanahi dute bi hitz horiek zuretzat?

Nere mundua harrizko mundua ere bada eta mundu horren bidetik herri bat ezagutu dut. Harriak aurrehistoria esaten digu, gazteluak ekartzen dizkigu gogora, herri honek nola antolatu zuen bere babes sarea...

“Harri eta herri” Arestiren poema ere bada, harrizko herri bat eta tarteka-tarketa bat edo bestek harrikada dexenteak ere bai.

## Peruharri museoa sortu zenuen. Horixe islatu nahi izan duzu bertan?

Hemen gure harrizko mundu hau jendeari erakusten saiatzen naiz. Urte garai honetan eskolak etortzen zaizkigu eta pixka bat jolastuz harri artean ibiltzen ditut umeak.

## Zenbat denbora behar izan duzu berau eraikitzeko?

Idazle batek liburu bat idazten duenean ezin zaio esan zenbat denboran idatzi duen. Aurretik ere burutazioak izaten direlako eta horiek ez direlako askotan kontutan edukitzen. Aspaldiko amets bat da.

## Uste duzu lagundu duela Nafarroaren, euskal kulturaren eta euskeraren historia hobeto ulertarazten?

Ze esango dizut ba! Neretzako pretentsio haundiegia izango litzateke baina zerbaitetarako lagundu baldin badu, ba ongi etorria izan dadila. Gero badakizu zer gertatzen den? Jatetxe batean bezala, bat etorriko zaizu txuleta haundi

baten bila, beste bat berriz barazkijalea izango duzu... Honera etortzen direnak batzuk historiaren puntutik egingo diote, besteak harrijasotzaileen atzetik doaz, naturaren ikuspuntutik...bakoitzak bere aldetik ikuitzen dio.

## Harrijasotzeak, kirolak berak ere izan du eboluzioa, ezta? Teknikak asko hobetu dira... Baina etorkizunean lekurik izango al du?

Beharko luke izan. Harriak ez badu tokirik herriak ere ez du gehiegirik izango. Bata bestearekin lotuta daude. Ni saiatzen naiz azaltzen harrijasotzea ez dela indar lan bat soilik, indarra landu dugula baina buruari emanez teknika berriak ere bilatu ditugula, nolabait badela bilakaera bat hor dagoena.

## Interneti esker oso ezaguna egin da zu euskalduna ez zinela eta Bilboko kazetariari eman zenion erantzuna. Euskaldunok ere ez al gara askotan izaten ezjakitun gure historiarekiko?

Bai, seguraski bai, kazetari horri bota zaizkion akatsetan, geu ere erortzen gara askotan. Sarri, gure historiako etapak azkeneko etapara mugatzen ditugu. Azken tartea ezagutzen baldin baduzu, badirudi aurretik ez dela besterik egon. Hain justu, aurreko astean egin den Atlantiar biltzarrean Stephen Openheimer genetista egin da. Esan du Britainiako jendea hemendik joan ote zen orain dela milaka urte, Amerikara ere bai... Historia errespetu osoz hartu behar da eta historia hori jakitea ondo dago, behar-bada iraganak etorkizuna argitu lezakeelako.

“Harrijasotzailea herri honen kulturaren zati bat ere bada”





## Eta zein etorkizun ikusten diozu gure herriari, egoera berri honetan?

Beti zurrunbiloetan galduta bagenbiltz bezala, euskal senak bere barruan ote duen edo bakoitzak bere bidea hartzen dugun iruditzen zait... Gogoratzen naiz Leitzarango autobia egiteko garaian politiko bakoitza karpetan bere planoekin joaten zela. Bakoitzak bere bidea teknikari batek bezala azaltzen zuen eta gero zer da, eta bost edo sei proposamen ziren autobia nondik egin behar zen esaten zutenak. Ez dakit, politikan edo herriaren etorkizunari buruz ere bakoitzak bere bidea ez ote dugun jorratzen. Badirudi bakoitzak duela egi osoa eta horrela gabiltza bestea kolokan jarriz.

“Kazetari horri bota zaizkion akatsetan, geu ere erortzen gara askotan”

## 40 urteko ibilbide luzea egin duzu harrijasotzaile. Hala ere, ez zara geldi egoteko pertsona, bestelako gauzetan saltseatzen ikusiko zaitugula iruditzen zait... zer duzu eskuartean?

Nik formulatxo bat badaukat, okupazioak, preokupazioa desokupatzen du. Okupatuta zaudenean kezka gutxiago etortzen diran burura, edo burutazio gutxiago. Zer esan! Uste dut bizitza bat dugula denok, zorte batzuk ere behar dira eta batzuek gauza batek garrantzia du, besteentzako beste batek, baina zerbait egiten ibiltze hori polita dela uste behar dut.

## Zuk publikoki esana da ez duzula lotsarik jendarean zahartzeko...

Hori esaten nuenean uste nuen ez nintzela zahartuko, baina zahartzen ari naiz! Eta noski, harria jasoz zahartu nahi nuke ahal dudan neurrian. Noski, garai batean erakustaldi bat egitera joaten nintzenean, ez zegoen azalpen gehiegirik eman beharrik. Lehengo astean semea gerriko min ez eta neu bakarrik joan nintzen erakustaldia egitera, eta esan nien: “Ez ezazuela uste ni garai bateko Perurena naizenik! Egunean txikiagoak jasotzen ditut eta!” Harri jasotzailea datorrenean beti ikusi izan dugu sekulako pertsona indartsu bat. Baina harrijasotzailea herri honen kulturaren zati bat ere bada. Alde horretatik ere azaltzea uste dut interesgarria badela.

“Harria jasoz zahartu nahi nuke”

## Horretaz ere arituko zara hitzaldian, ezta?

Horixe. Aurrena bideo txiki bat jarriko dut, Peruharri buruz pixkat hitzegingo dut eta hausnarketa batzuk ere botako ditut. Gero galdera-erantzunentzako tarte bat utziko dut. Gertatu izan baitzait, ikutu ez duzun arlo baten gainean jendeak jakinmina izatea eta erantzuteko ahalegina egingo dugu behintzat.





# ZER IRIZTEN DOTSAZU?

Gipuzkoako Aldundiak Via-T txartela ez duten erabiltzaileei bidesariak 50 zentimo garestitzea proposatu du. Neurria ekaina eta iraila bitartean bakarrik ezarriko litzateke. Egoera ekonomikoa orekatzeko neurria dela adierazi dute eta modu honetan 1,5 eta 2 milioi euro bitartean bilduko direla. Bidegik 900 milioi euroko zorra du.

## Neurri egokixa irizten jatzu bidesarixak garestitzia?

**ANTONIO BLANCO**



**E**z jata ondo irizten. Di-rua leku onera juango balitz, gaitzerdi. Baina ez dot uste justu osasunera bideratuko danik... 20 urte dira ordainduta daguala, nik neuk ez neuke ordainduko.

**JULITA IBARZABAL**



**I**gual egongo da arrazoiren bat horretarako, bidiak konpondu egin biharra izaten da eta pentsatu nahi dot, holako zeozetarako izango dala batuko daben dirua. Pentsatu be ez neuke egingo ez ordaintzerik.

**ONINTZA NARBAIZA**



**E**z nago ados, baina aurrekuek txarto gestionatu zeben eta zulu tapatu bihar da... Kontua da autopistian mantentze lanak bakarrik kostu haundixa daukela eta moduren bat topatu bihar da horixe ordaintzeko.

**IÑAKI LARRAÑAGA**



**F**astidixoa bat izan leike Via-T ez daukenendako. Aparte, ez jata bidezkoa irizten igotzia, ordainduta dagualako. Ohitturak aldatu bihar gendukez, garraio publikua sustatuaz etab. Baina hemengo bidiak libre bihar leukie.

Eman zure iritzia sarean



**Elizpe**  
Hortz klinika

Gure zerbitzuak:  
- Ortodontzia ikustezina  
- Inplanteak

DOHAINEKO BERRIKUSKETAK  
FINANTZAKETA ZURE NEURRIA  
KONPROMISORIK GABENO AURREKONTUA

Tel. 943 75 25 67  
Elizburu, 3 behea, Sorraluze

MUTUALIA, PADI (haurren arretarako hortz programa)

**Ion Murgizu Pinturak**  
MARGOKETA OROKORREAN

Empapelatuak  
Estukoak  
Fatxadak

Eskilarak eta patioak  
Pintura industrialak

T. 943 75 1324 M. 652 777 030  
Ezoziko etorbidea 24, 2 Behea

Javier Alonso Zelaeta  
MEDIKU ESTOMATOLOGOA  
K.Z. 20.000.434

**HORTZ KLINIKA**

Errabal 1 - Barrenekoa 2 T. 943 75 16 13

**GILA TABERNA**  
GOIZEKO 6:30 ETATIK AURRERA ZABALIK

GOSARIAK  
ETA PINTXO  
GOXO GOXUAK

ERRABAL KALEA 15 T. 943 75 18 34



## Kultur ekitaldien agenda

## Gaur, maiatzak 25

AFARI BEGETARIANOAK  
20:30etik aurrera, Gaztetxean

Ant: Tripafesta taldea

## Maiatzak 27, domeka

XIX. KALEKO MARGO LEHIAKETA  
9:00etatik aurrera

Ant: Udaleko Kultura Batzordea

## Maiatzak 30, eguaztena

BERTSO SAIO AUDIZIOA  
"Gu ere bertsotan"  
L.H.ko 4. eta 5. mailako ikasleak  
17:00etan, Zinean

Ant: Udala eta Plaentxi L.H.I.

## KONTZERTUA

Fertil Miseria eta Kaosarenerasoak  
20:30etik aurrera, Gaztetxean

Ant: Gaztetxea

## Maiatzak 31, eguena

AKORDEOI KONTZERTUA  
Jesus Mari eta Robertoren eskutik.  
Nagusien Egoitzan,  
17:00etatik aurrera

Ant: Nagusilan Elkartea

## Ekainak 1, barixakua

ANTZERKIA  
"Una palabra. Para decir si se baja la cabeza, para decir no se levanta".  
22:15ean, Zinean

Ant: Udaleko kultura batzordea

## Ekainak 3, domeka

HAURREN EUSKAL JAIA

Ant: Euskal Jai Batzordea

## Ekainak 5, martitzena

HAURREN DANBORRADA  
ENTSEGUA

19:00etatik 20:00ra, Frontoian

Ant: Danborradako arduradunak

## Ekainak 7, eguena

HITZALDIA

"Harri eta herri"

Iñaki Perurenaren eskutik.

19:00etan, Zinean

Ant: Pil-pilean Euskara Elkartea

# Dantza, kantua, hizkuntza, herria, Euskal Jaietan

**E**uskal Jai Batzordeak eta Urrats Dantza Taldeak, Pil-pilean eta Udalaren laguntzaz, ekainaren 3tik 21era bitartean luzatuko den egitaraua prestatu dute. 42. Haurren Euskal Jaia eta V. Erromerixa Egunaz gain, Iñaki Perurena "Harri eta Herri" hitzaldia ematera etorriko da eta Zuberoako kantagintza aitzakia hartuta, kantaldi parte hartzailea ere izan-

go da tarteko, Domentx Uzin eta Jon Basaurik gidatuta.

## Antzezlaren estreinaldia

Jokin Oregik bere herrian estreinatuko du berak zuzendutako "Lingua Nabajorum" antzezlana. Mikel Martinez eta Patxo Telleriak "euskararen historia txorora" kontatuko dute, euskaldunen liskarrei buruzko komedia berrian.



## 2012ko Euskal Jai egitaraua

### Ekainak 3, domeka

#### XLII. Haurren Euskal Jaia

10:30ean talde gonbidatuei ongi etorria eta hamarretakoa.

11:30ean kalejira herrian zehar.

13:00ean alardea Plaza Zaharrian.

13:30ean bazkaria.

14:00etan txistulari eta arduradunen kalejira musikariekin.

17:00etan alardea Plaza Zaharrian. Ondoren buruhaundiak.

### Ekainak 7, eguena

19:00etan "Harri eta herri" hitzaldia, Iñaki Perurenaren eskutik Zinean.

### Ekainak 8, barixakua

22:15ean "Lingua Navajorum" antzezlana Zinean.

### Ekainak 9, zapatua

#### V. Erromerixa Eguna

11:00etan hamaiketakoa Plaza Barrixan.

12:00etan kalejira Ezozira, trikitalari eta txistulariekin.

13:00etan dantza saioa Urratsakoein.

Ondoren txistu-triki-poteoa.

14:30ean bazkarixa elizpean.

17:30ean Aiko taldeak gidatutako erromeria.

19:00etan Xero Xiette taldearekin erromeria.

### Ekainak 21, eguena

19:00etan KANTALDIA, Zuberoako musikagintzan barrena. Abadetxeko aretoan.

## Jubilatuak Kalahorran

Udaberriko eguzkiarekin batera, Itxaropena Jubilatuen Elkarteko irteerak ere loratzen hasi dira. Aurreko asteburuan Kalahorrra irteera egin zuten zenbait bazkidek eta ardo dastaketa egiteaz gain, bingo berezia eta dantzaldia ere izan zuten bertaratu zirenek.

Kantabriara bidaia prestatzen dihardutela jakinarazi dute. Informazio gehiago Itxaropenan bertan.



Iturria: Itxaropena

ELGETAKO  
**espaloia**  
KAFFE ANTZOKIA

Espaloia Kafe antzokia - Maala 2 ELGETA - 943 78 90 85

**PASCUAL CHURRUCA, S.A.**

Hotzian eta beruan  
jotako tornilluak

Errekalde 21  
20590 SORALUZE

T. 943 75 00 06  
T. 943 75 16 00  
F. 943 75 24 61

# Iñaki Ruizen omenezko mendi lasterketa San Andresetan

Otsailean zendu zen korrikari eta mendizalea omenezko "I. Inaki Ruiz Mendi Lasterketa" antolatuta du mendi taldeak. Uztailaren 8an izango da, San Andresko jaien egitarauaren barruan. Hortik abiatuta 21 kilometro egingo dituzte, Pagobedeinkatu, Atsedon txaboleta, Pol-pol, Irukurutzeta, Atxolin, Karakate, Legarda eta Mendoztik zehar San Andresen bukatzeko. Izen ematea doakoa izango da eta egunean bertan.

## Gorbeian Iñaki gogoan

Maiatzaren 13an Gasteizko Zortzikakoak korrika taldeak, Miru Gain Otxandioko mendi taldeak eta Otxandioko lagunek antolatuta, omenaldi berezia egin zioten Ruizi Gorbeian. Gurutzeraino korrika igo ziren, gehienak Gasteiztik eta hiru lagun Soralezetik goizaldeko 2:30ean elkartu eta tontorreraino dauden 65 kilometroak bederatzi ordutan egin zituzten. Bukatzeko Barazarren bazkaldu zuten denek elkarrekin.



Lagun ugari batu ziren Gorbeia tontorrean.

Iturria: Amaia Agirre

## San Andres eta Ezoziko auzoen arteko lehia herri kirolean

Duela bost urte egin bezala, aurten ere herri kirolak au-

rrerrez-aurre ipiniko ditu bi auzoak. Hiru lehia egun izango dira, ekainaren 10ean Ezoziko jaietan, San Andreskoetan bestea eta herriko jaietan azkena. Lan zerrenda luzea osatu dute: kaxkara batzea, trontzak, ingudea, sokatira, txingak, zakua bizkarrean eta desentepaterako aulki jokoa. Auzotarren parte hartzea bultzatzeaz gainera, auzoko gazteen arteko harremana indartu eta herri kirolak sustatzea du helburu ekimenak.



2008ko Herri kirol desafioko irudi bat.

## EMAITZAK

### PELOTA

Olazabal – Laskurain	17
Gorka – Zubieta	22
Apezetxea – Laskurain	22
Olazabal – Zubieta	11
Atxotegi – Aldape	22
Unamunzaga – Bengoetxea	7

### FUTBOLA

Getariako KETA – Sora (Erreg. Pref)	0-0
Sora (Erreg.) – Ontzerri F.T.	1-3
Sora (Jub.) – Idiazabal K.E.	3-1
Beti Onak C.D. "B" – Sora (Erreg.)	2-1
Urola – Sora (Jub)	2-0

## AGENDA

### PELOTA

**Zapatua 26, 17:15ean Bilbon**  
Mendizabal III – Laskurain  
Gorka – Zubieta

**Debarroko pilota Txapelketako finala**  
**Domeka 27, 10:30ean Bergaran:**  
Atxotegi – Aldape  
Muguruza – Jauregi

### MENDI IRTEERAK

**Noiz:** Maiatzak 27, domeka

**Nora:** Madarixatik Otarrera eta Lasturrera

**Irteera:** 9:00etan Estazio kaletik



*Diseinua eta Formena*

Poligono Amillaga, n° 5  
Tif.: 943 76 99 85  
20570 BERGARA (Gipuzkoa)  
Fax.: 943 76 05 17

Altzairuen fabrikazioa:

- Bainugelak
- Sukaldeak
- Horma-armairuak
- Barruko altzairuak



**MARI MAR HARATEGIA**

*Gurean Euskal Herriko produktuak!*

Tel. 934 75 24 02  
Santa Ana kalea, 4 Soraluze



# ZORION AGURRAK



### Unai Txurruka Maiztegi

Maiatzan 26xan, 26 bira eguzkixari! Zoragarria zaralako... zorionak artista! Etorkizuneko Poteo lagunak



### Idoia Hernandez eta Uxue Ariznabarreta

Maiatzan 25ian eta ekainan 2xan 11 urte! Neska haundi ederrak zarielako, zorionak eta muxu pila danon partez!



### Miren eta Eider Gallastegi

Apirilan 2xan eta maiatzan 22xan 5 eta 3 urte betetzen ditzuzelako, muxu haundi pila, etxekuen partez!



### Zorionak Nora eta amama!

Apirilan 2xan eta maiatzan 22xan 5 eta 3 urte betetzen ditzuzelako, muxu haundi pila, etxekuen partez!



### Irune eta Juanan Varela

Maiatzan 20xan eta 21ian urtiak bete dozuzelako, muxu potolo asko etxekuen partez!



### Jone eta Jokin Olamusu

Apirilan 21ian eta maiatzan 23an urtiak bete zenituzelako, besarkada mundial eta patxo mordoxka, etxeko danon partez!


## jaiotakoak

MAREN FERNANDEZ DE MARURI ATIENZA



## hildakoak


JACINTO GANTXEGI ARANZABAL  
JULIANA GARAI ELORZA  
M<sup>a</sup> ARANZAZU ELGETA KORTABERRIA  
FRANCISCO MAIZTEGI ARANDO  
MIGUEL GALLASTEGI GAZTELU



## LEHIAKETA

► **Zein ageri da argazki honetan?**

► **Saria:** Elgetako Kafe Antzokian Balerdi balerdi ikusteko bi sarrera



## AURREKO ALEKO ERANTZUNA

► **Irabazlea:** Hodei Valdivieso

► **Mikel Santiago**, udaleko Euskarra eta Ongizate Batzordeburua da aurreko aleko argazkixan agertzen zana.



Oharra: Lehiaketako irabazlia aukeratzeko zozketia alia etara eta hurrengo barixaku eguerdixan egitten da. Ikusi pertsonaia guztiak Flickr-eko Pil argazkiak-en.

# ARGAZKI ZAHARRA



Iturria: Maite Gorostidi

## ANDRAMARIXETAKO LEHEN DANTZA SAIUA

**H**erriko historixan arakatu eta gerra oster a salto egitteko aukeria eskaintzen dosku argazki honek. Gerra Zibilak euskal kultura lantzeko debekua ezarri bazeban be, gerra ostian neska eta mutilez osatutako dantza taldia loratzeko saiakeria egin zan herrixan. Baliabide faltiagaittik bertan behera geratu zan dantza eskolia. Urte batzuk beranduago, herrixan zeguan hutsunia bete nahixan, Eibarren Kezka dantza taldiakin entsaiatzen zeben mutilak nesken laguntzaz, eta dantza talde barrixa sortu zeben. Zapatu arratsaldetan entsaiatzen zeben, Erregetxeko berdura plazan. Dantza eskola honek belau-naldiz belaunaldi jarraipena izan dau gaur egun arte. Erretratu honek 47 urte izango dittu eta orduan sortu zan nesken dantza taldiak Andramari jaixetan Plaza Barrixan eskainitako lehen saiuan jasota dago. Eskuan larrosa bana dauke eta “La flor” izeneko dantzia egitten dihardue.

**Argazkixan, ezkerretik eskumara:**

**Lehen goilaran:** Esther Senarro, Koro Peñalba, Amaia Sesma eta Mertxe Galarraga.

**Bigarren goilaran:** Ezozi Zabala, Maite Gorostidi eta Izaskun Zabala.

**Hirugarren goilaran:** Elena Larrañaga eta Arantxa Erkizia.



### MIREN GABILONDO AGIRREBEÑA

2012KO MAIATZAREN 20AN  
I. URTEURRENA

Irrifar ttiki bat marraztuz  
alkarri begira,  
zoragarrixa zer dan?  
Hau da zoragarrixa,  
zuk sortutako sua  
bihurtuz gure argixa  
sortzen dogula  
egunero egunsentixa.

Eskerrik asko Miren!  
Maitte zaittugunak...



## MAI-ko APLIKAZIOA ZURE MUGIKORREAN!

Erdi eta Goi Mailako zikloak, lanerako formazioa, ikasturteko egutegia, mapa, lan poltsa, proiektuak... eskura.



SMARTPHONENTZAKO BERE ESKAINTZA EGOKITZEN DUEN LEHEN IKASTETXEA ESTATUAN

- ✓ Ikastetxearen informazio osoa zure mugikorrean
- ✓ Euskaraz eta gazteleraz
- ✓ Doan



Eskaneatu QR kodea edo sartu zure mugikorretik:

<http://m.imaltuna.com>

Ikastetxean bertan ere Bluetooth eta WIFI bidez eskuratu dezakezu aplikazioa.

### ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK:

- Mekanizazioa (A-D).
- Instalazio elektrikoak eta automatikoak.(A-D).
- Administrazioa kudeaketa. (A-D).

### GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK:

- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua. (A-D + Eleanitza)
- Fabrikazio Mekanikoko Produktzioaren Programazioa. (A-D + Eskaintza Partziala + Eleanitza).
- Automatizazioa eta Robotika Industrialia. (A-D).
- Administrazioa eta Finantzak. (A-D + Eleanitza)
- Mekatronika Industrialia. (D)

**ESPEZIALIZAZIO GRADUONDOKOA:** Hotzeko estanzazioa.

**SARBIDE FROGARAKO PRESTAKETA KLASEAK.**

**ESKAITZA PARTZIALA:** Fabrikazio mekanikoko produktzioaren programazioa.

**LANERAKO FORMAZIOA:** Langile eta langabetuentzat ikastaroak.

**ESKAERAREN ARABERAKO FORMAKUNTZA.**


**AURREMATRIKULAK:** Maiatzaren 28tik ekainaren 8ra (biak barne)

**MATRIKULAK:** Uztailaren 5etik 11ra (biak barne)



## MATRIKULAK 2012/13

Maiatzaren 16tik  
ekainaren 22ra





## ARGI BERDEA DUZU GIDABAIMENA EUSKARAZ ATERATZEKO

Ikasi ezazu orain euskaraz gidabaimena lortzeko behar den guztia, hala eskola teorikoetan nola praktikoetan, eta egin ezazu azterketa bera ere euskaraz. Euskara eskura duzu hemen ere.

Aukera hau eskaintzen duen Solozabal autoeskolara joan eta hasi zaitez trafikoko araudia ikasten euskarazko eskuliburuan, multimedia programa erakarri baten bidez eta 600 galdera biltzen dituen CD bat erabiliz. Bertan B motako baimena eskuratzeko behar duzuna aurkituko duzu.

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza eta Soralezeko Udalaren ekimen honi esker, argi berdea duzu orain gidabaimena euskaraz ateratzeko.

